AERONAUTIKA. Proiektua aurrera

ITP eta Gamesak sortu berri duten taldeak Madrilen baimena dauka

Hala baieztatu du Espainiako exekutiboak legebiltzarrean egin adierazpenetan

Erredakzioa | DONOSTIA

Udaberri hasieran jakin zen ITPk eta Gamesaren aeronautika adarrak haien indarrak batu eta jarduera talde berri batean biltzeko asmoa zutela. Erabaki horren fruitua Alerion sozietatea da eta jada hegalak libre ditu aireratzeko, Europako Batzordeak kontrakoa ez dioen bitartean.

Espainiako Gobernuak, behinik behin, ez dio trabarik jarriko. Hala baieztatu zuen Rodrigo Rato Espainiako Ekonomia ministroak legebiltzarrean egindako agerraldian. Madrilek ez dio Lehiaren Defentsarako Auzitegiari sozietate berriaren inguruko txostenik bidaliko integrazioa azter dezan. Horrek funtsean esan nahi du Madrilgo gobernuak oniritzia eman diola.

Dena den, Espainiako estatua ez dago kasu honetan proiektutik kanpo, ordezkaritza izango baitu talde berrian SEPI Industri Partaidetzarako Estatuko Sozietate publikoaren bidez. Egitasmoaren atzean SEPI, Sener eta Gamesa daude. Lehen biek Turbo 2000 enpresaren partaidetza erdibanatzen dute eta honek, era berean, ITPren %53,125 dauka bere esku. Partaidetzen banaketa horrek azken finean esan nahi du bai Gamesa Aeronautica bai ITPk jarduerak sozietate bakar eta berri batean bilduko dituztela.

Oraingoz Alerion bezala ezaguna den sozietatean Turbo 2000k %41eko partaidetza dauka eta gainontzeko %59 Gamesako akziodunen esku. Ratok legebiltzarreko agerraldian adierazi zuen konpainia berriaren akzioak «egonkorragoak» izango direla eta likidezia izango dutela, «burtsara irtetea aurreikusita dagoelako». Gehienez, urtebete jota, burtsan egoteko asmoa dute sustatzaileek.

Talde berriaren xedea ITP eta Gamesa Aeronautica-ren arteko merkataritza, finantza eta industria alorreko sinergiak biltzea da. Madrilgo exekutiboaren arabera, indar batuketari esker taldea lehiakorragoa izango da. «Honenbestez, proiektu, merkatu eta bezero berriei aurre egin, finantza baliabide gehiago izatea ahalbideratuko du».

Europan erreferente izateko helburuarekin jaio zen Alerion eta bere bezeroen artean goi mailako enpresak izanen dira. Bestalde, urte honetan 700 milioi euroko fakturaziora heltzea aurreikusten da.

ONIRITZIA

Madrilgo gobernuak ez dio txostena Lehiaren Defentsarako Auzitegiari bidali eta horrek esan nahi du baimena duela

LABURREAN



Kazetaritzan lizentziatutako 55 Bizkaiko ikasleei praktikak egiteko bekak emango dizkie BBK-k

BBK Bilbao Bizkaia Kutxak eta Bizkaiko Kazetarien elkarteak akordio bat iritsi dute Kazetaritzan lizentziatutako ikasleei praktikak eskaintzeko. BBK-k 55 beka emango ditu Bizkaiko informazio enpresetan praktikak egiteko. Bizkaiko Kazetarien elkarteko presidente Jose Manuel Alonsok adierazi zuenez, «euren benetako gaitasuna erakusteko aukera emango die ikasleei». Dagoeneko aukeratuta dauden 55 bekadunek formazio ikastaro bat ere egingo dute.

Repsol-YPF-k 230 milioi euroko galerak izan ditu Argentinan urteko lehen sei hilabetetan

Repsol-YPF enpresak 796 milioi peso, hau da, 230 milioi euro inguru galdu zituen Argentinan urteko lehen erdian. Enpresak azaldu zuenez, 1495 milioi pesoko (430 milioi euro inguru) irabaziak izan zituen, baina argentinako txanponaren, pesoaren, %70eko debaluaketak, 2.250 milioi pesoko (650 milioi euro) galerak eragin zizkion.

ELAk «euskal sindikatuen batasuna» oztopatzen duela salatu du CCOO-Euskadik

CCOO-Euskadiko idazkari nagusi Josu Onandiren hitzetan, «ELA sindikatuak euskal sindikatuen arteko batasuna oztopatzen du. Eusko Jaurlaritzaren eta Patronalaren aurrean euskal langileon aldarrikapen bateratu bat egitea ekiditen du behin eta berriz», esan zuen. Jaurlaritzari, berriz, «benetako gizarte eztabaida eragiteko» eskatu zion.

Hermano Garate hirugarren adinekoen egoitzako langileek greba hasiko dute

Astelehenean greba mugagabea hasiko dute Donostiako Hermano Garate hirugarren adinekoen egoitzako langileak. Arrazoia da, abuzturako adostutako %15eko soldata igoera ordaindu ez izana. Zuzendaritzak esan zuenez, ez du igoera ordainduko eta akordioa «baliogabetzat» jo du. Langileak egoera ulertzea eskatu diete egoiliarrei. Beharginek adierazi dutenez, egoitzako langile guztiek hartuko dute parte greban, 85ek hain justu, eta txanda guztiak geldituko dira.

EGOERA EKONOMIKOA

Azken asteetan AEBetako jarduera ekonomikoa moteldu dela baieztatu du Erreserba Federalak

Erredakzioa | DONOSTIA

Ekonomiaren geldotzetik irten ezinik dabil AEBetako ekonomia. Uztaila geroztik indarra galdu du munduko ekonomia nagusiak. «Jarduera ekonomikoaren hazkundea moteldu egin da azken astetan, nahiz eta aldaketa garrantzitsuak diren sektore eta tokien arabera». Hori adierazi du Erreserba Federalak azken *beige* liburuan.

AEBetako banku zentralaren arabera, automobilen eta etxebizitzen salmentak sendo jarraitzen dute eta ekonomiari eustea lortu dute. Industriak, haatik, ez du ekoizpenik handitu eta motelaldi berri horren eragile nagusi izan da.

Orokorrean, teknologia alorreko eta erainkuntza materialen konpainiek ahul agertu dira. Haatik altzairu eta automozio sektorea indartsu agertu da.

Turismoari dagokionez, tokiz toki gorabeherak ageri dira baina, orokorrean esan daiteke bisitaldien iraupena murriztu eta turista bakoitzeko gastua ere jaitsi egin dela. Bestalde, enpleguak hobekuntza zantzurik ez duela ageri azaltzen du *beige* liburuak.

Txostenak, banku zentrala osatzen dute 12 eskualdetako arduradunen ondorioak jasotzen ditu eta datorren irailaren 24ean Erreserbak izango duen bilerarako eztabaidaren oinarri izango da. Bertan interes tasak mantendu edo ez erabakiko du. Gaur egun %1,75ean aurkitzen da dolarraren prezioa; 1961. urtetik ez zuen hain maila txikia ailegatu.

Azken sei astetan inflazioak «maila apaletan» jarraitzen duela aipatu du txostenak; hala ere, interes tasak egungo egoeran mantenduko dituen ustea zabala da.

BURTSA. Argentina, Serra eta salerosketa bolumenaren berpizkundea

Zero Gunetik berpiztuz

J.B. Andueza |

New Yorkeko atentatuen urteurrena. Alerta guztiak piztuta, edo berpiztuta, baikorkeria puntu bat harrapatzeraino. Gurean igoera handiak izan ziren, Zero Guneko hutsunea bete nahirik edo. Mamu dexente berpiztu zen. Batetik Argentina, *korralitoa*-ren zati bat ezabatuz, bestetik Jose Serra hautagaia, Brasilgo hauteskunde inkestetan gora eginez. SCH (+%6,69) eta BBVA (+%5,75) bultzatu zituzten berriok. Dow Jones indartsuegi hasi ez zen arren, negozio bolumena izan zen eguneko beste berpiztua, 850 milioi euroko salerosketa gaindituz. Endesa %3,78 igo zen, Telefonica %2,76 eta TPI %5 pasa.

DATUA

Iberia (-%3,85) hegaldi konpainian duen %5eko partaidetza saltzeko hiru banku aukeratu ditu SEPI Espainiako elkarte publikoak, horrela pribatizazioa amaituz. Berria irailak 11tik gertuegi jakinarazi du aukeran. Air Francen %35 saldu nahi du, bestalde, Frantziako gobernuak.

Bilboko 2000 indizea

Diferentzia **+%2,82** | Azken indizea **1.164,29** | Aurreko indizea **1.132,37**



Beste indizeak

New York (Dow Jones)*	8.651,23 (+%0,53)
Tokio (Nikkei)	9.400,08 (+%0,98)
Madril (IBEX-35)	6.492 (+%3,12)
Paris (CAC-40)	3.397,02 (+%2,95)
Londres (FTSE 100)	4.210,7 (+%0,84)
Frankfurt (DAX)	3.584,69(+%2,58)
Milan (Mibtel)	18.818 (+%1,49)

** Eguerdira arte*

Dibisen merkatua

Euro bat

Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (AEB)	0,9749
Libera Esterlina	0,6264
100 Yen (Japonia)	1,1693